

FEMINISMOA. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko Masterraren inaugurazioa izan zen atzo

Eider Goenaga | DONOSTIA

«Emakumearen kexuak politizatu zirenean hasi zen aldarrikatzen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna», adierazi zuen Celia Amorosek, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Filosofia katedradunak, EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen Donostiako *campus*-ean atzo emandako hitzaldian. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko Masterraren inaugurazioan hitz egin zuen Amorosek, eta berdintasunaren feminismoaren definizioa eta defentsa egin zuen.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun kontzeptua Frantziako Iraultzan sortu zela azaldu zuen: «Iraultzaileek herria eta herritargoa kontzeptuak beraien aldarrikapenen muina egin zituzten; eta emakumeak ere kontzeptu horietan txertatzeagatik borrokatu ziren sufragistak». Hala, «emakumeen kexuak politizatu eta aldarrikapen bilakatu» zirela adierazi zuen Filosofia katedradunak.

«Berdintasuna ez da identitate bera eskatzea»

«Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzean, baina, ez dugu gizonen identitate bera eskatzen. Ezin dira berdintasuna eta identitatea nahasi», nabarmendu zuen Amorosek. Haren arabera berdintasunarekin hiru gauza eskatzen dira: «Botere berdintasuna —errealitatean eragin eta hura aldatzeko ahalmen berdintasuna—, balio berdintasuna eta erabakitze berdintasuna».

«Baina gizonetik botere, balio eta erabaki berdintasuna iza-

«Emakumearen kexuak politizatzean hasi zen aldarrikatzen berdintasuna»

Celia Amoros filosofoak berdintasun kontzeptua azaldu du EHUn



PABLO S. QUIZA

Arantxa Campos, Celia Amoros, Txaro Arteaga, Lander Sarasola eta Maite Erro, atzoko ekitaldian.

teak ez du esan nahi modu berean erabiliko ditugunik», nabarmendu zuen.

Amorosen arabera, berdintasunezko feminismoaren kontrakoek maiz erabiltzen dute identitate berdintasunaren argudioa; «gehienetan nahita eta asmo txarrez».

Horrez gain, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunean oinarritutako feminismoaz hitz egin zuen filosofo espainiarra. Argi eta garbi utzi zuen planteamendu horren kontra dela, «emakumeak *ghetto* izatera kondenatzen dituela». «Sistema patriarkalaren

balio guztiak txarrak direla eta kutsatu egiten dutela diote. Aldarrikapenak baztertu, eta esaten dute ez dutela behar gizonen munduak emakumearen eskubideak aitortzerik. Baina horrek *ghetto*-etara eramaten gaitu», azpimarratu zuen Amorosek.

MASTERRA

Etorkizunerako berdintasun agenteak sortzen

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Emakunde bultzatutako graduatu ondoko titulazioa da atzo aurkeztutako masterra, eta horren helburua «etorkizunerako berdintasun agenteak» sortzea da. Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunaren Gaineko Masterraren bultzatzaileek, ildo horretan, agenteen irudia «gero eta beharrezkoago» dela adierazi zuten.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko Masterra bi urtekoa izango da, eta «ikasleentzako irteera profesional ugari» eskainiko dituela adierazi zuten Emakundeko zuzendari Txaro Arteagak eta Donostiako EHUko *campus*-eko errektoreorde Lander Sarasolak, «erakunde eta enpresetan gero eta beharrezkoago izango direlako». Haiekin batera, masterra antolatzen jardun duten Arantxa Campos eta Maite Erro izan ziren inaugurazioan.

Ildo horretan, Amorosek berdintasun agenteen irudia gorai-patu zuen. «Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzea eta emakumeak duen dependentzia haustea da haien lana», esan zuen; profesio izateaz gain, militantzia ere eskatzen duela nabarmenduz.

HIRIGINTZA. EAJ-EAk, EHk eta EB-IUk alkateari ohartarazi diote eraikina botaz gero «gizarte gatazka larria» sortuko lukeela

Alfonso Alonso: «Gasteizko gaztetxea itxi nahi dugu eta horixe bera egin behar dugu»

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Gasteizko alkate Alfonso Alonsok (PP) zuzen esan du gaztetxearekin zer egin asmo duen: «Gaztetxea itxi eta eraikina berreskuratu egin nahi dugu, eta horixe bera egingo dugu». Alonsok atzoko Hirigintza Batzordearen bileran jakinarazi zuen abian jarri duela gaztetxea presazko bidetik «berreskuratzeko espediente»; eta, hala, Gazte Asanbladako kideek lokala uztea eta «handik bota beharrik ez izatea» espero duela.

Alkatea Alde Zaharreko etxea lehenbailehen «birkonkistaztearen» alde agertu zen, nahiz eta

EAJ-EA, EH eta EB-IUko bozeramaileek ohartarazi zioten eraikina botatzeak «gizarte gatazka larria» ekarriko lukeela. «Udal agintariak auzion izandako utzikariak baztertu eta erantzukizunak hartzeko ordua heldu da», adierazi zuen Alonsok. Agintean daramatzen bi urteetan zergatik ez duen ezer egin, ordea, ez zuen azaldu.

Oposizioko udal taldeek, Alonsoren jarrerak «zio politiko nabarmena» duela salatu, eta «oso deigarritzat» jo zuten Partidu Popularreko alkateak Gazte Asanbladari alternatibarik eman ez eta buru-belarri eraikina botatzeari ekitea. Ildo horre-

tan, EAJko eledun Maria Jesus Agirrek gogora ekarri zion Jose Angel Cuerda alkate zen garaian Udalak eta gazteek ahozko akordioa lortu zutela, Gazte Asanbladak etxean lanean jarrai zezan zenbait konpromiso betez gero. Alonsok itun hori lortu izana kritikatu zuen erantzun gisara.

PSE-EEK baldintzak jarri ditu

Bestalde, PSE-EEK, oraingoz behintzat, ez zuen sostengua alkatea eta jarrera aldatzeko baldintza bat jarri zuen: katalogotik atera beharreko eraikinei buruzko berezko batzordea eratzea, non gaztetxeari buruz-



MIREN SAEZ

Gazte Asanbladako kideak, Gaztetxearen kanpoan.

koa ere eztabaidatuko litzatekeen. «Gaztetxea errekonstruzioa ez da behar hirigintza prozedurarik», gaineratu zion Patxi

Lazkoz eledunak. Eraikina bota ahal izateko aitzakia urbanistikoak baliatzea egotzi zion Alonsori.